

Donostia, 2020ko otsailaren 21a

IDAZKARI NAGUSIARI

DBUS LINEAK HOBETZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko zinegotzi Marta Huarte Pañok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua arabera, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAREN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) hil honetako bileran Dbus enpresaren lineetako zerbitzuak hobetzeari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirileko Donostiako Garraiobideen Araudiaren 12.1 eta 2 artikuluen (Erabilera orokorreko hiri garraio erregularrari buruzkoak dira) arabera, Udal organo eskumendunak, dagokion txosten teknikoa jaso ondoren, erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua antolatu eta planifikatuko du, lineei, ibilbideei, geltokiei, ordutegiei dagokienez.

Donostiako Igeldo auzoan zerbitzua ematen duen 16. lineari dagokionez, goizetako ordutegia aurreratzea eskatzen diogu Udal organo eskumendunari; izan ere, auzotarrek beren mugikortasun premien berri eman baitigute, justifikatuta, eta gaur egungo ordutegia ez dator bat herritarren premiekin, hau da, lanera joatea, osasun-etxera joatea, gestio pribatuak egitea.

Gaueko garraioari dagokionez, Igeldoko auzotarrek etxera garraiobide publikoan itzultzeko aukera izan beharko luketela uste dugu. Hirigunetik urrun dago auzoa, eta auzo horri zerbitzu hobea ematea lehentasunezko zat jotzen dugu. Dena den, premia hori hiriko gainerako auzoetara ere zabaldu nahiko genuke.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak onartu zuen herritarrek eskatu izan dutela 16. linearen goizetako ordutegia aurreratzeko. Baliabide nahikorik ez izatea omen da kontua, onartu zuenez. Aldi berean, eskaera horien erantzuna etorkizun ez-ziur batera eraman zuen.

Hirian errepideko trafiko gehiegi izatearen arazoari aurre egin behar zaio; ezin da gehiago atzeratu, eta konponbideak bilatzen hasi beharra dago, berehala. Guk ordutegiak zabaltzea eskatzen dugu, eta arazo horren zati bat konponduko litzateke horrekin.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Dbus-en Kontseiluan defenda dezala 16. linearen ordutegiak zabaldu egin behar direla, bereziki, Igeldotik erdigunera doan goizeko lehen zerbitzua aurreratzeko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio aukera bat bilatzeko konpromisoa har dezala, Igeldoko auzotarrak asteburuan gauez etxera garraiobide publikoa erabilia itzuli ahal izan daitezen.
3. Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio hiriko auzo guztietako garraiobideen mugikortasun premiak azter ditzala.

Sin.: Marta Huarte

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia